

Elikagaien segurtasunaren printzipioak



Elikagaien Segurtasuneko printzipio eta baldintza orokorrak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002ko urtarrilaren 28ko 178/2002 Erregelamenduan (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:32002R0178&from=ES>) daude jasota. Haren bitartez, elikaduraren legeriaren printzipio eta baldintzak ezarri ziren, Elikagaien Segurtasuneko Europako Agentzia eratu zen eta Elikagaien Segurtasunari lotutako prozedurak finkatu ziren.

Elikagaien Segurtasunaren Liburu Zuria

2000. urtean, gizakien eta animalien elikadurarekin zerikusia duten hainbat krisialdi pairatu ondoren (behi eroen sindromea, dioxinak...) Europako Batzordeak hurrengo urteetarako **lehentasun politikoan artean jaso zuen Elikagaien Segurtasuna**.

Horren harira, Elikagaien Segurtasunaren Liburu Zuria (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:51999DC0719&from=ES>) argitaratu zen, elikaduraren **esparruan zegoen legeria osatzeko eta modernitzatzeko egin beharreko ekintzak jaso zituena**. Liburu Zuri horretako **Ekintza Plana** elikagaiei buruzko legeriaren oinarri orokorrak jasotzen dituen oinarritzko Erregelamendutik dator (178/2002 Erregelamendua), baita landare- eta animalia-jatorriko elikagaiei buruzko xedapenetatik eta elikadura-sektoreko eragileen erantzunkizunak ezartzetik ere.

178/2002 Erregelamenduak Europan gai horri buruzko legeria osatu behar zuten 80 neurri baino gehiago aurkeztu zituen. Honako hauek dira nabarmentzekoak:

- Europako elikadura-organismo independente bat sortzea, irizpide espezifikoak formulatzeaz, alerta azkarreko sistemak kudeatzeaz eta arriskuak komunikatzeaz arduratuko zena.
- Esparru juridiko hobea eratzea, elikagaiei lotutako aspektu guztiak barne hartuko dituen, «sorotik mahaira».
- Kontrol-sistema harmonizatuagoak ezartzea maila nazionalen.
- Elkarrizketak izatea kontsumitzaileekin eta beste alderdi interesdun batzuekin.

Helburu orokorrak

Elikagaien Segurtasunaren arloko legeriaren helburu orokorrak 178/2002 Erregelamenduko 5. artikuluan daude ezarrita:

- Maila altua lortzea pertsonen **bizitzaren babesari** eta haien **osasunari** dagokienez.
- **Kontsumitzaileen interesak** babestea.
- **Bidezko jardunbideak** txertatzea elikagaien **salerosketan**.

Horiek guztiak lortzeko, aintzat hartu behar dira animalien osasuna eta ongizatea, alderdi fitosanitarioak eta ingurumena.

Azken xedea da **Elikagaien Segurtasuneko printzipio orokorrei jarraikiz ekoiztutako edo merkaturatutako elikagaien eta pentsuen zirkulazio askea lortzea Europan.**

Elikagaien Segurtasuneko printzipio orokorrak

Printzipio horien funtzioa da elikagaien segurtasunean eragina duten eragileek hartutako legegintzako neurriak haiek ezarritakoari jarraikiz hartzea. Zehazki, 178/2002 Erregelamenduaren 5-10. artikuluetan daude ezarrita:

- + Elikakate osoari aplikatuko zaion ikuspuntu integratua
- + Arriskuen analisia
- + Zuhurtasun-printzipioa
- + Gardentasun-printzipioa
- + Publikoa informatzea
- + Kontsumitzaileen interesak babestea.

Elikagaien Segurtasuneko baldintza orokorrak

178/2002 Erregelamendu Orokorraren 14.-21. artikuluetan daude ezarrita:

- + Elikagaien Segurtasunerako baldintzak
- + Pentsuen kaltegabetasunerako baldintzak
- + Elikagaiak aurkeztea
- + Erantzukizunak
- + Trazabilitatea
- + Elikagaiei dagozkien erantzukizunak